



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko martxoaren 7a

41. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegitura publiko berri guztientzako betekizuna izan dadin haien diseinua oinarrituta egotea ia energia-kontsumorik gabeko irizpideetan. Mozioa erretiratzea (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, eremu ez euskaldunean D ereduan aurrematrikulatzea sustatzeko kanpainaren porrota ikusita Hezkuntzako kontseilariak dimisioa emateari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoa Ikerkuntza Zientifikoaren Institutuan sartzeari buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak nola beteko duen Nafarroako eremu ez euskaldunean D ereduan aurrematrikulatzeko epean eskabide bikoitzak aurkezteari dagokionez Nafarroako Kontseiluak emandako irizpena. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, hornikuntza-sare elektrikoaren azterketa xeheari eta plangintzari buruzkoa. David Anaut Peña jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuaren eta Tuterako Udalaren artean Fernando Remacha Musika Kontserbatorioaren finantzaketarako eta funtzionamendurako hitzarmena oraindik ere sinatu gabe egoteari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Gobernuak antolatzen dituen edo parte hartzen duen kirol-probetan emakumeen irudia hobetzeko eta duintzeko ekimenei buruzkoa. Consuelo Satrustegui Marturet andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako polizia buruzko foru legearen aurreproiektua prestatzeari buruzkoa. Unai Hualde Iglesias jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Tuteran irakaskuntza publikoa babesteko eta bultzatzeko dituen asmoei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Droga-mendekotasunen II. Planari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Nafarroako ikastetxeetan lanaldi jarraitua edo malgua ezartzeari buruzkoa. Miren Aranoa Astigarraga andreak egin du (10. or.).

- Galdera, enpresek aurkeztutako proposamen teknikoa betetzen dela zaintze aldera egoitzetan jarraipen-batzordeak eratzeari buruzkoa. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Berdintasunaren Kontseiluaren funtzionamenduaren eta osaearen gaineko azterketaren ondorioei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Irurtzunen eta Arakilen erositako lurzatiaren erabilerari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Tuterako ikastetxeetan 2017-2018 ikasturterako aurrematrikularako epean ezagutu diren datuak ikusita Hezkuntza Departamentuak prestatu dituen jarduketari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, aurrekontu-kontusail hauen betetze- eta garapen-mailari buruzkoa: “Osasun-arloan genero-ikus-puntutik etengabeko prestakuntza emateko jarduerak” eta “Determinante sozialek osasun mentalean duten eraginari buruzko ikerketa proiektuak”. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (14. or.).
- Galdera, psikologo egoiliarren lanpostuei eta Nafarroako osasun mentaleko sisteman psikologo egoiliarren lanpostu-kopurua handitzeko ekintza planari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (14. or.).
- Galdera, jakitekoa zer ondorio izanen lukeen Nafarroako abeltzaintzako sektorearentzat Soriako Noviercas herrian 20.000 aleko behitegitzar bat paratzeak. María Luisa de Simón Caballero andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak emandako epaiari buruzkoa. Horren bidez, ezeztatu egiten ziren 2016ko otsailaren 22ko akordioak, Udalaren haur eskoletako hizkuntz ereduen araberako ikaspostuen eskaintza 2016-2017 ikasturteari begira berregituratzeari buruzkoak. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, nafarrak eta espainiarrak larriki iraintzen zituen ETB1eko “Euskalduna naiz, eta zu?” programari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Nafarroa Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen Biltzarrean sartzeari buruzkoa. Virginia Alemán Arrastio andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Navarra Televisión eta bere langileak laguntzeari buruzkoa, enplegu-erregulazioko espediente bat hasiko delako albistea dela-eta. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, jakitekoa zer egingen duen Nafarroako Gobernuak diktadura frankistari hasiera eman zion altxamendu karlistaren apologia-ekitaldia ekiditeko. Laura Lucía Pérez Ruano andreak egin du (18. or.).
- Galdera, Nafarroako lizitazio publikoari buruzkoa. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea (19. or.).
- Galdera, zerga-igoerari buruz eta autonomia erkidegoei baimendutako aurrekontu-defizitari buruz Gobernu zentralak erabakitako neurriek 2017an tributuen bidezko diru-bilketan eta gehieneko gastuan izanen duten eraginari buruzkoa. Galdera erretiratzea (19. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegitura publiko berri guztientzako betekizuna izan dadin haien diseinua oinarrituta egotea ia energia-kontsumorik gabeko irizpideetan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen azpiegitura publiko berri guztientzako betekizuna izan zedin

haien diseinua oinarrituta egotea ia energia-kontsumorik gabeko irizpideetan, eta 2017ko otsailaren 16ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, eremu ez euskaldunean D ereduan aurrematrikulatzea sustatzeko kanpainaren porrota ikusita Hezkuntzako kontseilariak dimisioa emateari buruzkoa.*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, eremu ez euskaldunean D ereduan aurrematrikulatzea sustatzeko kanpainaren porrota ikusita Hezkuntzako kontseilariak dimisioa emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Eremu ez euskaldunean D ereduaren aurrematrikulatzea sustatzeko zure kanpainaren porrota ikusita, noiz emanen duzu dimisioa?

Iruñean, 2017ko otsailaren 24an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoa Ikerkuntza Zientifikoaren Institutuan sartzeari buruzkoa.*KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoa Ikerkuntza Zientifikoaren Institutuan sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko kide Koldo Martínez Urionabarrenetxeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi jakin denez, Nafarroako

Unibertsitate Publikoa laster sartuko da Ikerketa Zientifikoaren Institutuan. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu:

– Departamentuak zer balorazio egiten du akordio horri buruz?

Iruñean, 2017ko otsailaren 24an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak nola beteko duen Nafarroako eremu ez euskaldunean D ereduan aurrematrikulatzeko epean eskabide bikoitzak aurkezteari dagokionez Nafarroako Kontseiluak emandako irizpena.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Alberto Catalán Higuera jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko ahozko galdera bat aurkeztu du, zeinean eremu ez euskaldunean D ereduan aurrematrikulatzeko epeari buruzko bost itaun egiten baitizkio Hezkuntzako kontseilariari.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 191. artikularekin bat, ahozko galderak zehatz eta labur adierazitako itaun bakarria baino ez du jasoko.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak nola beteko duen Nafarroako eremu ez euskaldunean D ereduan aurrematrikulatzeko epean eskabide bikoitzak aurkezteari dagokionez Nafarroako Kontseiluak emandako irizpena. Gainerako itaunak aparteko ahozko galdera gisa aurkeztu beharko dira.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Hezkuntza Departamentuak nola bete asmo du Nafarroako Kontseiluak berriki emandako irizpenak egiten duen interpretazioa, Nafarroako eremu ez euskaldunean D ereduan aurrematrikulatzeko epean eskabide bikoitzak aurkezteari buruzkoa?

– Hezkuntza Departamentuak nola bete asmo ditu apirilaren 2ko 31/2007 Foru Dekretuaren 4.4 artikulua eta otsailaren 4ko 8/2015 Foru Agindua-ren 5. oinarria, Nafarroako eremu ez euskaldunean aurrematrikulatze-epean eskabide bikoitzak aurkezteari buruzkoa?

– Hezkuntza Departamentuak erabakirik hartu al du, Nafarroako eremu ez euskaldunean D ereduan aurrematrikulatzeko epean ezarritako erreferentzia-ikastetxeei dagokienez?

– Haur hezkuntzako bigarren zikloan eskola-unitate bat ezartzeko, arau batek ikasle-kopuru gutxieneko bat (8) behartzen du. Arau hori urratuko du? Alloko eta Antzingo ikastetxeetan ildo horretako inolako erabakirik jakinarazi al du?

– Epetik kanpoko eskaerarik onartu al da lehen aipatutako erreferentzia-ikastetxe horietakoren batean?

Corellan, 2017ko otsailaren 24an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, hornikuntza-sare elektrikoaren azterketa xeheari eta plangintzari buruzkoa.

DAVID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea David Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, hornikuntza-sare elektrikoaren azterketa xeheari eta plangintzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Dabid Anaut Peñak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako ahozko galdera egin nahi du Osoko Bilkuran, Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuaren politika gidatzen duen programa-akordioak honela dio, hitzez hitz:

«Hornikuntza-sare elektrikoa, egin beharreko jarduketak eta haien plangintza eta gauzatzea xeheki aztertzea. Testuinguru horretan, Itsaso eta Deikaztelu arteko linean proiektatutako azpiegitura beharrezkoa den erabakiko da, energia husteko benetako eskaria kontuan izanik, baita azpiegiturak ingurumenean duen eragina, dagozkion udalen iritzia eta kontuan hartu beharreko gainerako gai erabakigarriak ere.»

Goi-tentsioko linea igaroko litzatekeen inguruko hainbat udalek eta hainbat eragilek gai honen gaineko iritzia eman izan dute, baita beren iritzia hori Nafarroako Gobernuari azaltzeko asmoa eta gogoia adierazi ere.

2016ko maiatzaren 24an hainbat udalek prentsaurreko bat egin zuten, eta adierazi zuten Garapen Ekonomikoko Kontseilariarekin elkartu nahi zutela. Bilera eskaera erregistro bidez egin zuten, urte bereko ekainaren 2an. Bilera hori ez da egin, eta udalek ez dute erantzunik jaso.

2017ko otsailaren 16an goi-tentsioko linearen aurkako plataformak bilera eskaera publikoa egin du, oraingoan Uxue Barkos Nafarroako Gobernuaren lehendakariari.

Kontuan izanda programa-akordioak gai honen inguruan udalen iritzia kontuan izateko konpromisoa jasotzen duela, kontuan izanda herritarren aldetik ere bilera eskaera publiko bat egin dela, eta kontuan izanda akordio-programatikoaren arabera egin behar den hornikuntza-sare elektrikoaren plangintza eta azterketa xehea egiteko iritzia horiek guztiak funtsezkoak eta beharrezkoak direla,

Zer urrats egin behar du Nafarroako Gobernuak proiektu horren inguruko azterketa xehea egiteko eta iritzia horiek guztiak kontuan izateko? Zein da Nafarroako Gobernuak bilera eskaera horiei eman behar dien erantzuna, eta zein epean?

Iruñean, 2017ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, Hezkuntza Departamentuaren eta Tuterako Udalaren artean Fernando Remacha Musika Kontserbatorioaren finantzaketarako eta funtzionamendurako hitzarmena oraindik ere sinatu gabe egoteari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuaren eta Tuterako Udalaren artean Fernando Remacha Musika Kontserbatorioaren finantzaketarako eta funtzionamendurako hitzarmena oraindik ere sinatu gabe egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Hezkuntzako kontseilariak Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dezan:

– Zergatik ez da oraindik sinatu Hezkuntza Departamentuaren eta Tuterako Udalaren arteko hitzarmena, Fernando Remacha Udal Musika Kontserbatorioaren finantzaketa eta funtzionamendurakoa?

– Departamentuaren ustez, noiz sinatu ahalko da?

Corellan, 2017ko martxoaren 1ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Gobernuak antolatzen dituen edo parte hartzen duen kirol-probetan emakumeen irudia hobetzeko eta duintzeko ekimenei buruzkoa.

CONSUELO SATRÚSTEGUI MARTURET ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Consuelo Satrustegui Marturet andreak aurkeztutako galdera, Gobernuak antolatzen dituen edo parte hartzen duen kirol-probetan emakumeen irudia hobetzeko eta duintzeko ekimenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Consuelo Satrustegui Marturet andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteria-kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Australian egiten den Down Under Tour txirrindularitza-lasterketaren antolatzaileek berriki erabaki dute sari-banaketako azafatak kentzea. Hori izan da, munduko txirrindularitzako eliteko lasterketan, kentzen duen lehena. Aipatu neurria emakumeen objektutze sozialaren aurka borrokatzeko ezarri zen, eta beste lasterketa batzuen antolatzaileek –Mallorcako Challenge, esate baterako– jada adierazi dute bide beretik joko dutela.

Egoera hori ikusita, hona hemen Nafarroako Gobernuari egiten diogun galdera:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik inolako ekimenik aurrera eramateko, berak antolatzen dituen edo laguntzen dituen kirol probetan emaku-

meen irudia hobetu eta duintze aldera? Baiezkoan, zein izanen dira ekimen horiek?

Iruñean, 2017ko martxoaren 1ean

Foru parlamentaria: Consuelo Satrustegui Marturet

Galdera, Nafarroako polizia buruzko foru legearen aurreproiektua prestatzeari buruzkoa.

UNAI HUALDE IGLESIAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unai Hualde Iglesias jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako polizia buruzko foru legearen aurreproiektua prestatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Unai Hualde Iglesias jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakari-tzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari Beaumont andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak joan den urtean

Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legea aldatzeari ekin zion, Foruzaingoari dagokionez.

Beste alde batetik, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legearen Azken Xedapenetako Lehenaren aginduz, 2016an abian jarri ziren, halaber, toki entitateekiko parte-hartze eta kontsulta prozesuak, 2017ko apirila baino lehen Nafarroako Parlamentura Nafarroako toki polizia buruzko foru lege proiektu bat ekartzeko helburuarekin.

Berriki jakin dugu zure departamentuak asmoa duela Gobernuari aurkeztea, onets dezan, Nafarroako polizia buruzko beste foru lege aurreproiektu bat, aurreko guztia kontuan hartuko duena.

Horiek horrela:

Orain arte zer urrats zehatz egin dira lege berri horren aurreproiektua prestatzeko, eta zein dira bertan jasotzen diren ezaugarri eta berritasun nagusiak?

Iruñean, 2017ko martxoaren 1ean

Foru parlamentaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, Droga-mendekotasunen II. Planari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Droga-mendekotasunen II. Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilari Fernando Domínguez jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Droga-mendekotasunen II. Plana 2012an pres-tatu zen, eta 2016an amaitu zen haren indarraldia.

Helburu nagusia zen Nafarroako herritarren osasuna hobetzen laguntzea, elementuak eskainiz drogekin dituzten harremanak modu arduratsuan kudea ditzaten, haien bizi baldintzak hobetzea, arreta berezia emanez drogen kontsumoagatik arazoak dituzten pertsonen, eta lankidetzan aritzea mendetasunen fenomenoaren bilakaerarekin lotutako entitate eta erakundeekin.

Planak, ezinbestez, bazituen diagnostiko bat, helburuak, jarduketarako ildoak eta ekintza zehatzak, eta ebaluaziorako adierazle zehatzak ere bai. Orain bigarren plan horren ebaluazioa egiteko eta hirugarren plana prestatzeko garaian gaude-nez, honako galdera hauek aurkezten ditugu:

Zein fasetan daude Droga-mendekotasunen II. Planaren ebaluazioa, egoeraren diagnostikoa eta plan berriaren prestaketa? Zer epe darabilzue gogoan? Zer metodologia erabiltzen ari da edo erabiliko da? Zer berritasun aurreikusten dituzue?

Iruñean, 2017ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Hezkuntza Departamentuak Tuteran irakaskuntza publikoa babesteko eta bultzatzeko dituen asmoei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak Tuteran irakaskuntza publikoa babesteko eta bultzatzeko dituen asmoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-teko parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuko 2017ko martxoaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Tuteran eskolatzearen, azpiegituren eta eskola-antolamenduaren arloetan garatu diren politikek eratu duten ikastetxeen konposizioa ez dator bat, ez Tuterako gizartearen errealitatearekin, ez ikastetxeen ingurune fisiko-sozialaren errealitatearekin ere. Hartara, urteetan zehar, politika horien ondorio negatiboetan ditugu ikastetxe publiko bat gaitzea, Monte San Julián HLHIp a itxi baita, eta

ikastetxeen arteko desoreka, egoera sozioekonomikoaren eta kulturalaren ondoriozko premia bereziak dituzten ikasleen kopuruaren arabera. Izan ere, sozialki kaltetutako ikasleak eta eskolatze berantiarrekoak ikastetxe jakin batzuetan metatzen dira.

Parlamentarien bisitan, Elvira España ikastetxeke zuzendaritzak bere kexa adierazi zuen, kaltetutako ikasleei arreta emateko baliabide ezagatik, eta "babesa" eskatzen zion sare publikoari.

Egoera horri erantzuteko baliabidez hornitu behar dira ikastetxe publikoak, hezkuntza-erantzun onena eman eta kaltetutako ikasleak era positibo-

an konpentsatu ahal izan ditzaten. Beste alde batetik, neurriak ezarri behar dira, antolaketaren eta egituraren aldetik, gizartearen osaerari eta errealitateari erantzunen dien eskolatze orekatu bat lortzeko.

Zer asmo ditu Hezkuntza Departamentuak Tuteran irakaskuntza publikoa babestu eta sustatzeko? Zer neurri bultzatuko ditu ikastetxe publikoak baliabidez hornitzeko, sozialki kaltetutako ikasleei arreta eman eta eskolatze orekatura hurbiltze aldera?

Iruñean, 2017ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Nafarroako ikastetxeetan lanaldi jarraitua edo malgua ezartzeari buruzkoa.

MIREN ARANOA ASTIGARRAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako ikastetxeetan lanaldi jarraitua edo malgua ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako ikastetxeetan lanaldi jarraitua eta lanaldi malgua eskaini eta ezartzea neurri positiboa da, erantzuten diolako eskaera bati, gure erki-degoko ikastetxe eta familia askoren artean gero eta aitopen eta hedapen handiagoa baitu.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuari dagokio eskaera horri erantzutea, ekitatea eta aukera-berdintasuna bermatuz, ikasle guztientzako kalitate handienaren printzipioarekin bat. Lanaldi jarraitua hartzen ahal duten guztientzat, eta hainbat arrazoiengatik (funtsean familiekin bateragarri egitea) ikastetxera arratsaldean agertzen jarraitu behar duten ikasleentzat, haien ikastetxeko irakastorduek goizekoak badira ere.

Jadanik lanaldi jarraitua edo malgua eskatu eta eskaintzen duten ikastetxeetan arratsaldeko ordu-tegia antolatzeko modalitateen aniztasuna ikusita, parlamentu-talde honek hauxe jakin nahi du:

Hezkuntza edo antolaketa arloko zein irizpideren arabera baloratu da lanaldi jarraitua edo malgua ezartzea ala ez ezartzea halaxe eskatu zuten ikastetxeetan?

Nolako neurriak planteatzen ditu Hezkuntza Departamentuak hezkuntzaren kalitatea bermatzeko ikastetxera arratsaldean agertzen diren ikasleei, lanaldi jarraitua edo malgua hartu duten ikastetxe guztietan?

Zer baliabide ditu Hezkuntza Departamentuak neurri horiek bultzatzeko?

Iruñean, 2017ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Galdera, enpresek aurkeztutako proposamen teknikoa betetzen dela zaintze aldera egoitzetan jarraipen-batzordeak eratzeari buruzkoa.

MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztutako galdera, enpresek aurkeztutako proposamen teknikoa betetzen dela zaintze aldera egoitzetan jarraipen-batzordeak eratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano Sala andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozietako kontseilari Miguel Lapparra jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela egun gutxi irakurri dugu Nafarroako gizarte gaien arloko 2017rako ikuskapen plana onetsi dela.

Bertan, jarduketa-ildo nagusien artean, jasotzen da berrikusi egingen dela ea betetzen diren itunen klausula teknikoak eta haietan eskatzen diren langile-ratioak, bai eta langileen kualifikazioa ere.

Parlamentu honek mozio bat onetsi zuen, zeinak premiatzen zuen La Atalaya, Las Hayas, Valle del Roncal, Oncineta eta Infanta Elena egoitzetan jarraipen-batzorde bat sortzera, enpresaren, sindikatuen, Gobernuaren eta familien artean, enpresek aurkeztutako proposamen teknikoa betetzen dela begiratzeko.

Horrenbestez:

Jarraipen-batzorde horiek sortu al dira? Ezezkoan, departamentuak zer aurreikuspen ditu mozioan onetsitakoa bete dadin?

Zer neurri hartuko ditu Gobernuak klausula teknikoak edo ratioak betetzen ez diren ikuskapenetan?

Iruñean, 2017ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano Sala

Galdera, Nafarroako Berdintasunaren Kontseiluaren funtzionamenduaren eta osaeraren gaineko azterketaren ondorioei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Berdintasunaren Kontseiluaren funtzionamenduaren eta osaeraren gaineko azterketaren ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak honako galdera hau aurkezten du, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollo andreak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Joan den martxoaren 1ean Nafarroako Berdintasunerako Institutuak aditzera eman zituen berdintasun planak eta emakumeen elkarten mugimendua sustatzeko ekimenak. Neurri horien artean aipatzen zen, zehazki, Nafarroako Berdintasunaren Kontseilua berritzea. Gobernuak emandako prentsa-oharrean adierazten zenez "Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluaren funtzionamendua eta osaera aztertu eta berrikusi dira, bertan elkarten mugimenduaren ordezkari-tza eta berdintasun politiketan eragiteko izanen duen ahalmena indartzeko".

Era berean, honako hau zehazten zen: "Nafarroako Berdintasunerako Kontseilua kide anitzeko aholkularitza-organo bat da, zeinetan parte hartzen duten Nafarroako emakumeen elkarten ordezkariak eta, halaber, landa erakundeetako emakumeek, desgaitasuna duten pertsonen entitateetakoek eta ijitoen elkarteetakoek. Era berean, organo horretako kide dira Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako enpresaburuen Konfederazioa, UGT eta CCOO sindikatuen emakume-arloak eta Aukera Berdintasunerako Agenteen Lanbide Elkartea".

Informazio hori ikusirik, honako hau galdetzen dugu:

Zein dira Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluaren funtzionamendua eta osaera aztertzei ateratako ondorioak? Zein neurri eta aldaketa zehatz hartu dira haren funtzionamendu eta osaeran, ordezkarietasuna eta aniztasuna errazteko?

Iruñean, 2017ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Nafarroako Gobernuak Irurtzunen eta Arakilen erositako lurzati- tien erabilerari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Irurtzunen eta Arakilen erositako lurzati-
tien erabilerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Luis Zarraluqui Ortigosak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

2016an Nafarroako Gobernuak guztira 148.148,78 metro karratuko azalera erosi zuen lurzungo eta Arakilgo mugarteetan, etorkizuneko industrialde berri bat garatzeko. Garapen Ekonomikoko lehendakariordeak, Parlamentuan izandako agerraldi batean, argi utzi zuen erositako azalerek berrurbanizatzeko prozesuak beharko zituztela etorkizunean, eta horiek ez zirela beteko, inola ere, legegintzaldi honetan, nahiz eta lurzati batzuetan agian okupazioa egon litekeen, baina jakin

gabe behin-behinekoa edo behin betikoa izanzen, eta zein araubidetakoa.

Inguruabar horiek jakite aldera, gai horren honako alderdien gaineko galdera hau onartzea eta Osoko Bilkuran izapidetzea eskatzen dut, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

- Erositako eremuan, eta erantzunaren datan, lurzatiaren alogera, salmenta edo lagapena nolakoa zen (azalera, prezio unitarioak eta ematen ahal diren gainerako xehetasunak).

- Instalaturiko enpresarik baldin badago, haien jatorria.

Iruñean, 2017ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Tuterako ikastetxeetan 2017-2018 ikasturterako aurrematrikularako epean ezagutu diren datuak ikusita Hezkuntza Departamentuak prestatu dituen jarduketei buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako ikastetxeetan 2017-2018 ikasturterako aurrematrikularako epean ezagutu diren datuak ikusita Hezkuntza Departamentuak prestatu dituen jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikita dagoen foru parlamentari Carlos Gimeno Gurpeguik, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egingen du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer jarduketa zehatz planifikatu ditu Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak, Tuterako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan 2017-2018 ikasturterako aurrematrikularako epeari buruz ezagutu diren datuak ikusita, hiriko sare publikoaren eskaintza hobetzeko, bai aipatu etapen bai Bigarren Hezkuntzakoan?

Iruñean, 2017ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, aurrekontu-kontusail hauen betetze- eta garapen-mailari buruzkoa: “Osasun-arloan genero-ikuspuntutik etengabeko prestakuntza emateko jarduerak” eta “Determinante sozialek osasun mentalean duten eraginari buruzko ikerketa proiektuak”.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, aurrekontu-kontusail hauen betetze- eta garapen-mailari buruzkoa: “Osasun-arloan genero-ikuspuntutik etengabeko prestakuntza emateko jarduerak” eta “Determinante sozialek osasun mentalean duten eraginari buruzko ikerketa proiektuak”.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zein betetze-eta garapen-maila dute 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako honako kontu-sail hauek?: “Osasun-arloan genero-ikuspuntutik etengabeko prestakuntza emateko jarduerak”; zeinaren helburua den Osasun Departamentuak etengabeko prestakuntza emateko jarduerak egitea genero ikuspuntutik; eta “Determinante sozialek osasun mentalean duten eraginari buruzko ikerketa proiektuak”, zeinaren helburua den ikertzea nola eragiten duten pertsonen osasun mentalean zenbait determinante sozialek, hala nola etxegabetzeek, pobrezia energetikoak eta abarrek, eta zein diren hartu beharreko neurriak.

Iruñean, 2017ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, psikologo egoiliarren lanpostuei eta Nafarroako osasun mentaleko sisteman psikologo egoiliarren lanpostu-kopurua handitzeko ekin-tza planari buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, psikologo egoiliarren lanpostuei eta Nafarroako osasun

mentaleko sisteman psikologo egoiliarren lanpostu-kopurua handitzeko ekintza planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zein da 2016-2017rako barneko psikologo egoiliarren lau lanpostu ziurtatuen egoera? Lanposturen bat hutsik geratu al da dagokion egiaztapena ez lortzeagatik?

Zein da ekintza plana, Nafarroako osasun mentaleko sisteman psikologia klinikoko profesio-

nalak kontratatzerakoan barneko psikologo egoiliarren lanpostu-kopurua handitzeko? Zein da plan horren betetze maila?

PsicAP proiektuaren jarraipena PsicAp 2 da, eta helburu nagusia du erakustea oinarrizko osasun laguntzan psikologia klinikoko profesionalaren figura sartzeak erabiltzaileen osasun fisikoa eta mentala hobetzea dakarrela, kostu-erabilgarritasun erlazioa ohiko tratamenduarena baino hobea izanik. Jarraipen horren alde egingen al da? Zein baldintzatan?

Iruñean, 2017ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, jakitekoa zer ondorio izanen lukeen Nafarroako abeltzaintzako sektorearentzat Soriako Noviercas herrian 20.000 aleko behitegitzar bat paratzeak.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer ondorio izanen lukeen Nafarroako abeltzaintzako sektorearentzat Soriako Noviercas herrian 20.000 aleko behitegitzar bat paratzeak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarreko Marisa de Simón Caballero andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuaren ustez, zer ondorio izanen luke Nafarroako abeltzaintzako sektorearentzat Soriako Noviercas herrian 20.000 aleko behitegitzar bat paratzeak? Nafarroako Gobernuak zer jarrera du proiektu hori dela-eta?

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak emandako epaiari buruzkoa. Horren bidez, ezeztatu egiten ziren 2016ko otsailaren 22ko akordioak, Udalaren haur eskoletako hizkuntz ereduen arabera ikaspostuen eskaintza 2016-2017 ikasturteari begira berregituratzeari buruzkoak.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak emandako epaiari buruzkoa. Horren bidez, ezeztatu egiten ziren 2016ko otsailaren 22ko akordioak, Udalaren haur eskoletako hizkuntz ereduen arabera ikaspostuen eskaintza 2016-2017 ikasturteari begira berregituratzeari buruzkoak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldearen eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2017ko martxoaren 9an egin beharreko kontroleko Osoko Bilkuran izapidetzeko:

Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak 37/2017 zenbakiko epaia eman zuen iragan otsailaren 21ean. Horren bidez, baietsi egin zuen 119/2016 zenbakiko errekurtsioa, halako moduan non ezeztatu egin baitzituen 2016ko otsailaren 22ko akordioak, Udalaren haur eskoletako hizkuntz ereduen arabera ikaspostuen eskaintza 2016-

2017 ikasturteari begira berregituratzeari buruzkoak.

Epai horren arabera, akordioak erabat deusezatzak dira, horiek hartzerakoan Udalak ez duelako aintzat hartu Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuari dagokiola eskumena Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikaspostuen eskaintza publikoaren (28/2007 Foru Dekretua) eta hezkuntzaren alorrean euskarazko irakaskuntzaren plangintza egitearen arloan (18/1986 Foru Legea eta 1070/1990 Foru Dekretua).

Eskumenen ardura, oro har, Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuarena denez, eta haren menpe dagoenez Nafarroako Gobernuaren Aholkularitza Juridiko Zentrala, departamentu horri egiten diogu gaurkotasun handiko galdera hau.

Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak 119/2016 zenbakiko errekurtsioa baietsiz iragan otsailaren 21ean eman zuen epaia ikusita, Nafarroako Gobernuak uste al du, 0tik 3 urtera bitarteko zikloaren gaineko bere eskumenen arabera, berari dagokiola aurretiazko baimena ematea Iruñeko Udalak onetsi ahal izan ditzan administrazioarekiko auzi horretan auzitan jarritako aldaketak?

Epai hori eman baino lehen Iruñeko Udalak nahiz beste toki entitate batzuek haur eskolei buruzko gisa bereko aldaketak egin dituztenean, aurretiazko baimenik eman al zaie toki entitate horiei?

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, nafarrak eta espainiarrak larriki iraintzen zituen ETB1eko “Euskalduna naiz, eta zu?” programari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, nafarrak eta espainiarrak larriki iraintzen zituen ETB1eko “Euskalduna naiz, eta zu?” programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu nafarrak eta espainiarrak larriki iraintzen zituen ETB1eko “Euskalduna naiz, eta zu?” programari buruz?

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroa Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen Biltzarrean sartzeari buruzkoa.

VIRGINIA ALEMÁN ARRASTIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Virginia Alemán Arrastio andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroa Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen Biltzarrean sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Virginia Aleman Arrastiok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2017ko martxoaren 6an –astelehena– Nafarroa ofizialki sartu da Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen Biltzarrean. Hori dela-eta,

Nafarroako Gobernuak zer itxaro du? Nafarroari zer ekar diezaioke Euroeskualde horretan sartzeari?

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Virginia Aleman Arrastio

Galdera, Navarra Televisión eta bere langileak laguntzeari buruzkoa, enplegu-erregulazioko espediente bat hasiko delako albistea dela-eta.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Navarra Televisión eta bere langileak laguntzeari buruzkoa, enplegu-erregulazioko espediente bat hasiko delako albistea dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak ahoz erantzun diezaion:

Navarra Televisión-en enplegu-erregulazioko espediente bat hasiko delako albistea ikusita, Nafarroako Gobernuak ezer egingen al du enpresa horri eta bere langileei laguntzeko?

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, jakitekoa zer egingen duen Nafarroako Gobernuak diktadura frankistari hasiera eman zion altxamendu karlistaren apologia-ekitaldia ekiditeko.

LAURA LUCÍA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Lucía Pérez Ruano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer egingen duen Nafarroako Gobernuak diktadura frankistari hasiera eman zion altxamendu karlistaren apologia-ekitaldia ekiditeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Historian zehar dokumentatuta dago karlistek eta militarrek bat egin zutela 1936an, Mola jeneralaren, Tomás Rodríguez Arévaloren eta Raimundo García García "Garcilasoren" arteko lankidetzari esker, Bigarren Errepublikako Gobernuak erorazteko.

Aliantza haren ondorioz, Nafarroako bide-bazterretan oraindik ere milaka gorpu dautza, beren gertukoek berreskuratu ezin izan dituztenak.

Halere, karlistek, 1895az geroztik, urtero ospatzen dute martxoaren 10ean “Tradizioaren martirien aldeko festa”; eta aurten, 2017an, “Comunión Tradicionalista Carlista” izenekoak meza bat emanen du heldu den martxoaren 10ean, 20:00etan, Iruñeko San Nikolas elizako kapera batean. Ondoren, afaria egingen dute 21:30ean, Aita Moret kaleko egoitza militarrean.

Nafarroako Gobernuak zer egingen du diktadura frankistari hasiera eman zion altxamendu karlistaren apologia-ekitaldi hori ekiditeko?

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

Galdera, Nafarroako lizitazio publikoari buruzkoa.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetu dadin Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako lizitazio publikoari buruzkoa. Galdera 2016ko urriaren 4ko

113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, zerga-igoerari buruz eta autonomia erkidegoei baimendutako aurrekontu-defizitari buruz Gobernu zentralak erabakitako neurriek 2017an tributuen bidezko diru-bilketan eta gehieneko gastuan izanen duten eraginari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkezturiko galdera erretiratu duela. Galdera zerga-igoerari buruz eta autonomia erkidegoei baimendutako aurrekontu-defizitari buruz Gobernu zentralak erabakitako neurriek 2017an tributuen bidezko diru-bilketan

eta gehieneko gastuan izanen duten eraginari buruzkoa zen, eta 2016ko abenduaren 13ko 149. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

